
MARTA TXORI - II (1865-1946)

Asko izan dira Bakion Marta Txoriren ganeko informazioa non batu dogun itaundu deuskuenak. Egia esan, Sabin Uriartek egindako ikerketa eta erritarrak (Martina Uriarte, Juan Abio) esandakoetatik batu godu daukagun guztia. Zeuon etxeetan (Bakion) be egongo da nonor a ezagutu dauana, seguru baietz! Berori dozue onena aren barri jakiteko. Marta Txoriren ganeko informazioa geiago euki dogu eta, alan bada, oraingoan be, aren beste zati bat ekarri gura izan dogu ona, lerrootara.

Unekada baten Marta Txoriren aita-amak eta lau umeak Txorietxen (*Txorietze*) bizi ziran, errentadore. Ori dala eta, batzuen ustez, Txorietxen bizi izan zalako. Marta Txori ezizena esaten el eutsoen.

Prezetoriara (*Prestetóridxe*) batuten ziran erriko beartsuak, ezeukiak. Marta Txori aretariko ezeuki bat izan zan ezkerroan, berak be Prezetorian eukan bizilekua. Erretratuak pintetan jezan eta etxean auki-ten jezan eskegita, eta nozonoz, erriko umeai erakusten eutsezan. Esan genduan lez, kandelak be egiten jezan, gero errian saldu edo emoteko. Eleizan argimutil bat eukiten ei jen berarentzako bakarrik, berak egindako kandelegaz eta guzti.

Jateko eta edatekoak erritarrak emonda ataraten ei jen bizimodua aurrera, esaterako, Uribera (*Uribe*) joaten zan sarritan esnetan, esnea batu eta kantetan asten ei zan Uribeko maastipean.

Marta Txori oso eleizatsua izan ei zan. Albo errietako santu buztietara joaten zan, oinez: Busturira, Bermeora, Jatabera, Larraurira, Meñakara, ... santuen aldeko mezak entzuten.

Beinola baten, San Eufemia egunean, mezea entzuten joan zan Bermeora. Manuko bidean joiala, da! kirikolatza topau jen bidean. Sasoi atan boltsarik erabilten ez zan ezkerroan, kirikolatza koiu eta aldean eroian aterkin andian sartu jen. Alan bada, Bermeora eldu eta eleizara sartu zan. Eleizan egoala, aterkina ondoan jela, ez zan igarten an barruan kirikolatzik egoanik. Baina komunioa artuten joankeran, aterkina bakarrik itzti jen eta aterkina mobiduten asi zan. An inguruan egozan bermeotarrak ori ikusikeran, ikaratuta, aterkin aren barruan sorginak edo zer ete

egoan asi ziran esaten, danak ikara baten. An barruan, baina, kirikolatza besterik ez zan egon.

Beste bein baten be, gerrea etorri zanean, milizia-noak, tankeak-eta Landabarrenan beea etorri ziran Bakiora. Berak orreek guztiorrek ikusikeran, "*ene bada, gerrie da-ta, gerrie da-ta!*" asi zan orroaka esaten. Ez jen jakingo gerrea zer zan, txarra zana bai, ostera. Joan zan, bada, Goikoleako mune ganera. Orduan a garbi, sari barik, egoten zan. Mune ganera igan, arriak artu eta lantzean soldaduren batzuk etortzen ziranean, areei arrika egiten eutsen.

Soldaduak, eraso zala-eta, fusilak artu eta ara gora, munera, batu ziran "*Ene bada, zer koixu dogu emen?*" Marta Txori gizajea.

Iniaki Martiartu

+ + + +

BERBALAPIKOA

(Bb: Bakoko berbea)

itaundu = galdetu, preguntau.

ikerketa = azterlan, inbestigazino.

argimutil = kandelero. **(Bb)**

Prezetoria (*Prestetóridxe*) = Etxe-Pinto ondoan egoan, gaur eguneko aparkalekuan.

aterkin = gordesol.

jen (*dxen*) = eban. **(Bb)**

jezan (*dxesan*) = ebazan. **(Bb)**

igan (*idxen*) = igon. **(Bb)**

eraso = atake.